Adineko pertsonen ONGIZATE eta ZAINTZARAKO ZENTROA Bergaran

Egoitzen alternatiba; ospitale itxuratik haratago

2019ko uztaila

Gradu Amaierako Lana

Ikaslea_Eukene Labaka Garamendi

Tutorea_Jon Muniategiandikoetxea Markiegi

1940 eta 1960 urte artean egindako azterketa demografikoek diotenez, 80 urtetik gorako pertsonen igoerak datu historikoak uzten ari zaizkigu. Europa erdialdeko zein iparraldeko herrialde guztietan %200eko igoerak jasan dira gutxienez.

80 urtetik gorako pertsona talde hau izango da, logikoki, prozesu patologikoak sufritzeko eta ondorioz dependentzi egoera sorrarazteko arriskua izango duen taldea, eta, beraz, epe luzeko zaintzen eskatzaile izango dena.

Espainian egoitzetan bizi diren pertsonen bataz besteko adina ere nabarmen hazi da azken urteotan.

1971	1981	1996	2005
73 urte	76 urte	81,4 urte	%60 80+

Datu hauek ikusita, gizartean gainzahartze garrantzitsua ematen hari dela ikus daiteke, eta, ondorioz, talde hauei zuzendutako zerbitzuak indar eta laguntzak beharko dituztela.

Bizitzaren zikloan ematen den denpendentzi egoeraren bilakaeraren grafikoa:





BERGARARI BURUZ_

Bergara Gipuzkoako Debagoiena eskualdean kokatzen den udalerria da. Historikoki, Debagoieneko hiriburutzat hartu izan da, hainbat bideren lotunean egoteagatik. Bertan batzen dira kostaldea eta Gaztelako lautada lotzen duten bideak, baita Gipuzkoa barrualdeko bideak ere. Kokaleku estrategikoa duela esan ohi da, eta, horri esker, herri aberats eta handia izan da beti.

XIX-XX.mendeetan industria sendoa eratu zen Bergaran, etxeko elektra-tresneria, ehungintza eta siderurgia. Honek Bergararen dentsitatea nabarmen haztea ekarri zuen, herriaren hedapena eraginez. Gaur egun metalurgia da industria jarduera nagusia.

Azalerari dagokionez, Oñatiren ostean, Gipuzkoako bigarren herri handiena da, udalerriaren azalera 75,97km²-koa izanik. Ondarearen harira, 192 eraikin historiko katalogatu ditu.

2017ko erroldaren arabera, 15.013 biztanle bizi dira bertan, horietatik %23,5 65 urtetik gorako pertsonak izanik.

14 auzo dituen herria da, 9 udalerrirekin egiten du muga eta Deba ibaiak zeharkatzen du alderik alde.

ARAZOA_

Gaur egun duen kokapena dela eta, Mizpirualde Zaharren Egoitzara iristeko irisgarritasun zaila begi-bistakoa da.

Herriko plazatik gutxi gora behera 200 metrora aurkitzen den arren, 30-40 metroko kota aldaketa antzematen da plazatik bertara. Hori dela eta, bertara iristea zailtasun bilakatu da bertako erabiltzaile zein familiarteko eta bertara hurbildu nahi duen edonorentzat. Kotxez iritsi badaiteke ere, aparkaleku kopurua oso urria da (20 aparkaleku).

Arazo honen ondorio, bertan bizi diren adineko pertsonak bertatik atera gabe bizitzera ohitu behar izan dute, eta, ondorioz, beraien zenbait senitartekoren bisitak urriak izatera ere.

HELBURUA_

Proposamenaren helburua zaharren egoitza berri bat egitea da, non, bertako erabiltzaileek kalearekin harreman zuzen bat izango duten. Proiektu honen funtsa, ohiko egoitzen alternabiba bat eraikitzea izango da, ospitale egituretatik aldenduz eta hiri izaera indartuz.

Egoitza zati ezberdinetan banatzea proposatuko da, bertako erabiltzaileek duten beharren mailaren arabera. Modu horretara, espazio bakoitza erabiltzaileen egoerara egokitzea lortuko da.

Egoitzaz aparte, baina honen zati bezala, autonomi maila egoki bat duten adineko pertsonentzat etxebizitzak eraikitzea izango da beste erronketako bat.

Proiektu honek irisgarritasun arazoetaz aparte, arazo sozialak ere uztartuko ditu.

NON_

Leku lau eta guztientzat irisgarri batean eraikiko da, herriaren erdigunetik hurbil.

Hain zuzen ere, egoitza berria Bergarako Boni Laskurain pasealekuan kokatuko da. Bertan, leku lau batean egokitzeaz gain, hainbat ekipamendu nagusi aurkitzen diren ardatz berean kokatuz, horien artean osasun zentroa edo jubilatuen etxea eta eguneko zentroa izanik.

Hori horrela, egoitza berria ekipamenduen ardatzeko zerbitzuen parte izango da.



NOLA_

Horretarako aukeratu den eremua, gaur egun hilerria aukitzen dena da (7.000m²). Hori horrela izanda, hilerriaren leku-aldatzea proposatu beharko da, kanposantua herrian bertan izatetik, herriaren kanpoaldera eramanez.

Urte batzuk atzera proposatutako proiektua da hau, baina, urteetan geldi dagoena. Horregatik, proiektua aurrera eramatea bultzatuko da, bertan zaharren egoitza berria eraikiz. Kanposantu berria, beraz, San Joxepe auzoan birkokatzea proposatuko da.

Emaitzak, guztientzat irisgarri izatera iritsi eta ekipamenduak eskuragarriago izatea izango du helburu, bertako erabiltzaileen baharrak asetuz batera.





Larreza de Aguirre kaperaren mantentzea



Hilerri kanpoko zuhaitzen mantentzea



Egoitzaren kokapen berria Bergara iparraldean aurkitzen da, Boni Laskurain pasealekuan. Herriaren zentroa industriagunearekin lotzen duen ardatzean zehar aurkituko da, herriko hainbat ekipamendu kokatzen diren ardatzean, hain zuzen ere.

Ardatzaren albo batean kokatzen diren ekipamendu garrantzitsu hauek, egoitzaren kokapena estrategikoa izatea egiten dute, zerbitzu guzti hauek eskura izan eta egoitza bera horietako bat bilakatuz.

Esku-hartze eremua, gainera, herriaren erdigunetik 500 bat metrora kokatuko da, kalearekiko erlazio oso zuzen batekin, zentro-industriagune arteko trantsizioan eta eremu lasai batean.

Aipatu beharra dago, pasealeku guztia oinezkoena dela, eta bere zati bat bidegorriari dagokiola, zuhaitzez jositako 7m-ko zabaleradun pasealeku bat izanik.



Larreza de Aguirre Kapera_

Hilerriaren eremuaren barruan Larreza de Aguirre kapera aurki dezakegu, XIX.mendean eraikia, BA-5 mailaren barruan katalogatua dagoena. Katalogazio **hau Udal Mailako Babesa duten Hondasun Higiezin** bezala kontsideratzen da.

BA-5 mailako ondasun edo elementuetan egingo diren jarduketek honakoak errespetatu beharko dituzte: horien bolumetria, kanpoaldeko itxura eta oinarrizko banaketa —tipologikoa nahiz egiturazkoa—, egituraren berezko materiala mantenduz, eta Sendotzeko eta/edo Zaindu eta Apaintzeko jarduketa-kategoriak erreferentziatzat hartuta, 317/2002 Dekretuari jarraituz.

Hau horrela izanda, kapera proiektuan barneratuko da, bere parte izanez.



Kanposantuko eraistea eta aparkalekuaren okupatzea



Horizontalean hedatzea; orube osoaren betetzea

Esan bezala, ondarea proiektuan integratuz, kapera mantentzea erabaki da, eraikinaren egituraketa bere inguruan osatuz eta aldi berean, honen barrualdean erabilera anitzeko espazio bat sortuz. Kapera izaera guztiz ezabatu gabe, espazio multifuntzional bat proposatuko da.

Bestalde, hilerri kanpoan aurki ditzazkegun ezki eta haritzak, beraien tamaina nabarmena dela eta, proiektuaren bigarren estrategia bezala hartuko dira. Hauek ere mantendu eta proiektuan integratuz, egoitzaren zenbait espazioei izaera naturala ematea bilatuko da, kalearekin harreman zuzen bat lortzearekin batera.

Gaur egungo hilerriaren elementu nagusiari, inguratzen duen hormari, dagokienez, hau eraistea erabaki da. Modu horretara, orubeak alboan aurkitzen den aparkalekuarekin bat egingo du eta proiektua horizontalean garatu ahal izango da, hilerria zein aparkalekuaren azalera osoa hartuz.

Aipatutako elementuen mantentzean, hiru patioren sorrera gauzatzen da, patio hauen inguruan eraikin osoa egituratuz. Honekin, gainera, patio bakoitzari izaera ezberdin bat eman eta pribatutasun maila zein eraikinaren banaketa ezberdintzea lortuko da.

Patio hauen izaera hiru motatan banatuko da, pribatutasun maila eta hauen erabileraren arabera.

1. **Pribatua**, egoitzako gainerako erabiltzaileekin soilik partekatutako espazioa. Logela bakoitzak bertara irteera izango du, terrazaz eta berdegunez osatua egongo da.
2. **Semi-pribatua**, gune intergenerazionala. Tailerretatik lorategirako irteera izango dute eta belaunaldi ezberdinetako jendearekin konpartitutako espazioa izango da.
3. **Publikoa**, kapera, hau aurkitzen den patioa eta kafetegia. Herriko edonork erabili ahal izango dituen erabilerak aurkitzen dira bertan. Erabilera hauek egoiliarrekin konpartituko dituzte.

LOGELA UNITATEAK_

Egoitzaren antolakuntza era horizontalean garatuko da eta hiru solairu baino gehiagodun eraikuntzak sahiestuko dira, garapena giza eskalan eman dadin bai eta espazioa auzo edo herri modura ulertzeko ere. Honekin, erabiltzaileak era libre batean mugitzea lortu nahi da, bai egoitza barruan eta baita honek eskaintzen dituen kanpo espazio zein inguruetan ere.

Logela guneak, pribatutasuna bermatzeko, gune publikoetatik eta administrazio gunetik bereiztuko dira. Hauen artean harreman bisuala emango da, beirate bidez gune komunak diren lorategi, pasealeku edota bestelako elementuak ikusi ahal izango direlarik.

Arkitektura dependetziarekin erlazionatuz, honen araberako espazio ezberdinak sortuko dira, autonomi maila ezberdinak espazio anitzak eskatzen ditu eta. Hala izanda, beharren araberako espazioak diseinatuko dira.

Horrela, espazio dinamiko eta anitz bat sortuko da, pertsonari sentsazio onak sorrarazi eta itoaldi sentsazioetatik urruntzen lagunduz.

1.Patioa



- Komunikazio nukleoa
- Logela behe eta lehen solairuan
- Logelak behe solairuan, negutegiak lehen solairuan
- Jangela eta espazio komunak



Logela bikoitza terrazarekin (behe solairuan) Dependentzia altuko erabiltzaileentzat (ohe artikulatuekin) 32m² + 10m² terraza	Banakako logela (lehen solairuan) Dependentzia ertain/baxuko erabiltzaileentzat 32m²	"Co-Housing" apartamentuak (lehen solairuan) Erabiltzaile autonomoentzat (bakarkako/binakako aukera) 30m²

3.Patioa

2.Patioa



- Gune publikoa
- Administrazio gunea
- Gune intergenerazionala (tailer gunea)
- Sarrera nagusia

E_1:150